



BARREN

TOKIKOM

# Ilunetik argia

Maraca Diablo





## Agustina Artetxe Mendizabal

2022ko apirilaren 3an hil zen, 93 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## Gojko Vucinic

"Vuchy"

2021eko apirilaren 14an hil zen, 50 urte zituela.

**Elkartuko garen esperoan.**

Nale



II. URTEURRENA

## Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

**Zaila da onartzea**

**inoiz ez zaitugula berriro ikusiko.**

**Hala ere, Oier, bizi garen bitartean,**

**ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Etxekoak



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ

Portu, Ubide eta bideetako ingeniaria



## Eman bidea bizikletari

goen herri kirolen esparruan bidea zabaltzeak meritu bikoitza duela esango nuke.

Gauza bera esan daiteke Annie Londonderryri buruz. Bera izan zen, 1895. urtean, munduari bizikletan bira emateko ausardia izan zuen lehen emakumea. Garai haietan ez zegoen batere ongi ikusia emakumeak bizikletan ibiltzea. Bizikletan joateko janzkera eta ibilkerak ez ei ziren aproposak andre batentzat. Hala ere, emakumeek bizikletan ibiltzeari ekin zioten, eta horrek independentzia eta askatasun esparru berriak lortzeko balio izan zuen. Ongizate maila hobetzea lortu zuten emakumeek eta bizikletak.

Bizikletak, mugikortasun arloan bereziki, esparru berriak irabazteko aukera ematen du. Hirien Antolamendu Plan Orokorra (HAPO) da herrietan bizikletaren erabilpenaren giltza. HAPOan jaso-

tzen dira, besteak beste, bidegorri sarea, parkeak, galtzadak, plazak eta gure hirietako eraikinen ezaugarri eta dimentsioak. Urbanistikoki udalek daukaten lege edo arau nagusia da. Plan horrek, funtsean, herritarren ongizate maila hobetzeko balio du. Nahitaez, herritarren osasunean eragiten dute dokumentu horretan jasotako erabakiek.

Garapen Jasangarrirako Helburuak 2030 Euskadi Basque Country Agendan jasota daude. Motordun ibilgailuen bueltan idatzitako HAPO zaharrek berridazte txukunaren beharrean daude helburu horiek lortu nahi badira. Galtzadetatik ondo bereiztutako bidegorri zabal eta luzeak diseinatu eta bizikletari hauspoa emateko, besteak beste. Horretarako, Annieren edota Uxueren besteko ausardia oparitu nahi diet HAPOen nondik norakoak erabakitzen dituztenei.

**M**endaron lehenbizikoz ikusi dut gaur emakume bat frontoian aizkora erakustaldian. Hodei Ezpeleta, 2021eko Euskadiko aizkolaritxapeldunak, eta Uxue Ansorregik saio polita eskaini digute. Enborra hain erraz mozteak zer pentsatua eman dit. Indarrak gain, teknikak ere berebiziko garrantzia izango du jakina. Aurretik egin duten bidea ez zen xamurra izango. Uxueren kasuan, bereziki, guztiz maskulinizatua ze-

*“Motordun ibilgailuen bueltan idatzitako Hirien Antolamendu Plan Orokor zaharrek berridazte txukunaren beharrean daude”*



**BARREN**

ARGITARATZAILEA:



**ELGOIBARKO IZARRA**  
Eusko Legebiltzararen Argitaletxea

**Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR**

**943 744 112**

**Publizitatea: 943 743 704**

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)**

**[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)**

**[www.barren.eus](http://www.barren.eus)**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, losu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izaguirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasa, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ HITZEKIN

22. Korrikak gure herria zeharkatu zuenetik egun batzuk pasatu badira ere, oraindik ez zaizkigu ahaztu apirilaren 1ean, 10:00ak inguruan hasita, bizi izan genituen emozioak. Hura giroa Santa Ana kale inguruan (nahiz eta txingorra ere egin) Mauxitxa txarangak lagunduta! Ordurako beste asko Sigma aldean ziren, Eibarkoek zekarten lekukoaren zain. Herriari buelta eman, eta plaentxiarrak zain ziren Maltzagan, Ainhoaren animo hitzek lagunduta lekukoa haraino eraman zuten hainbat erakunde, lantegi, eskola ordezkarien zain.

Kanpotik edo hotzean ikusita, sortzen digun zirrarak ez du parekorik, baina ezin dugu ahaztu, honek guztiak aurretiko isileko lan eta parte-hartze handia duela. Hori dela eta, era batean edo bestean, lagun izan zaituztegun denoi eskerrak eman nahi dizkizuegu: AEK euskaltegiko ikasle batzuei; Udaleko Euskara Sailari; udaltzainei; diru ekarpena egin duzuen guztioi (zoritarrez, oraindik ere, AEKn horren premia dugulako); Josu Merinori; Mauxitxa txarangari; Azkue argazki dendari, BARRENI, Ainhoa Lendinezi... Ezin ahaztu Ikastolak eta Herri Eskolak antolatutako Korrika Txikia. Eguzkia lagun, giro ederra sortu zuten eta irakurritako mezua ere ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula izan. Ea hori dena egia bihurtzen den!

Guretik gaur zortzi pasatu arren, oraindik, hor dabil 22. Korrika eta domekan amaituko da Donostian, non eskuz esku erabili den lekukoaren barruko mezuak zer dioen jakingo dugun, beraz, euskaltzaleok ezin huts egin.

Lekukoak darabilen mezuak zer dioen domekara arte ez jakin arren, aurtengo ediziorako aukeratutako leloak dioena ederki asko ikasi dugu: **HITZEKIN**, hizkuntza hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egingo badu, euskaldun aktiboak behar ditu, konbentzimendutik praktikarako pausua emango dutenak, eta horretan bidelagun duzue AEK euskaltegia, bakoitzak nahi edo behar duen hori ikasteko eskolak ematen ditugulako, egutegi eta ordutegi malguekin.

Azkenik, herritarroi mezua: **HITZ(EGIN)EKINI!!**

**AEK Euskaltegia**

### ▶ OHARRA


Aste Santua dela-eta, datozen bi asteetan ez dugu BARREN aldizkaria kaleratuko. Online edizioa, baina, jai egunetan soilik etengo da, eta gainerako egunetan Elgoibar eta Mendaroko berri emango dugu [barren.eus](http://barren.eus) atarian. Gure bulegoa ere zabalik egongo da, apirilaren 14tik 18ra izan ezik.

**BARREN**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEan edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



III. URTEURRENA  
**Adoracion  
Garrido  
Navarro**

2019ko apirilaren 9an hil zen, 78 urte zituela.

**Gure bihotzetan sentitzen jarraitzen zaitugu,  
irakatsi zenigun guztiarekin batera.**

**Maite zaitugu.**

Etxekoak



## Mekak eta Jubilatuen Biltokiak digitalizazio proiektu bat burutu dute

**M**eka Lanbide Hezkuntzako Ikastetxeko ikasle eta irakasleek Jubilatuen Biltokiko emakume eta gizonezkoei mundu digitalerako aholkuak eman dizkiete. Persona bakoitzaren beharren arabera, gertutasun praktikoa eskaini diete jubilatuei, teknologian konfiantza izan dezaten, eta gailu digitalak, smartphone telefonoak, tabletak edo bestelakoak erabiltzerakoan beldurrik ez izateko. Horretarako, segurtasun digitalari buruzko hitzaldi bat antolatu zuten Ertzaintzarekin elkarlanean, eta han entzun ahal izan zituzten hainbat aholku. Horrez gain, galdetegi bat prestatu zieten bakoitzaren beharrak ezagutzeko, eta horren arabera, praktikak egin zituzten talde txikietan. Azkenik, jarraipena egiteko hitzordua ere zehaztu zituzten.



## Kilimon erreken bitxikeriak ezagutu dituzte Inma Mugertza hidrogeologoarekin

Arno Guraso elkarteak antolatuta, Kilimon erreken berezitasunak ezagutzeko aukera izan zuten mendarorrek domekan, *Mendaro herria ezagutzen* egitasmoaren barruan. 42 lagun batu ziren, eta Inma Mugertza hidrogeologoak eman zizkien azalpenak. Ibilbidean zehar geldialdiak egin zituzten, Madarixatik Mendarora bitartean egiten duen zazpi kilometroko ibilbidean izaten



dituen gorabeherak ezagutzeko. Besteak beste, agertu eta ezkutatzearen arrazoiak azaldu zizkien Mugertzak, eta erreken irteera nagusia ere erakutsi zien, bai eta Ebroko zuloa ere. Ura, iturriak eta ibaiak gure paisaien eta gure nortasun kolektiboen funtsezko elementuak direla ikasi zuten familiek; ura ustiatzeko baliabide bat baino askoz gehiago dela, alegia, eta ibaiak eta akuiferoak kanal edo ur-biltegi hutsak baino gehiago. Era berean, gure lurrazpiko ura altxor ordezkazina dela esan zien Mugertzak, zaindu beharreko ondare naturala, eta gaur egun, eskualdeko lau herri hornitzen dituela urez Mendarok: Elgoibar, Deba, Mutrikue eta Mendaro.

## Udako egonaldiak, zaharren egoitzetan

Udan zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko eskararak aurkezteko epea zabaldu dutela jakinarazi du Mendaroko Udalak. Egonaldiak hamabostaldi naturalean egingo dira, eta sarrera edo irteerak ez dute zertan hildaren 1, 15 edo hileko azkenengo egunarekin bat etorri. Eskabideak ondorengo egunetan egin behar dira: ekaineko egonaldietarako, maiatzaren 4a baino lehen; uztailko egonaldietarako, maiatzaren 11 baino lehen; abuztuko egonaldietarako, ekainaren 8a baino lehen eta iraileko egonaldietarako, uztailaren 13a baino lehen. Egonaldiak Donostiako Txara 2 egoitzan egingo dira, eta plaza kopuru mugatua egongo da. Eskaera kopuruaren arabera eta Gipuzkoako beste egoitza batzuetan dauden plazen erabilgarritasun-egoeraren arabera, plaza kopurua handitzea baloratuko dute. Eskaerak egiteko hitzordua hartu behar da 943 088 080 telefonoan.

## Dolmenen ibilbidea ezagutzeko irteerak

Karakate eta Hirukurutzeta arteko Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Debegesak. Zapatuan, gaztelaniaz izango da, eta hildaren 18an, berriz, euskaraz. 10:00etan bilduko dira Karakateko aparkalekuan, eta handik, oinez egingo dute Hirukurutzetara arteko bidea, tarteka, azalpenak entzuteko geldialdiak eginez. Interesatuak ondorengo telefonoan eman behar dute izena: 657 794 677.

## Emakumeentzako hausnarketa saioa

Amatasunaren gaia emakumeen artean oso presente egoten da adin batetik aurrera, baina badaude ama izan nahi ez duten emakumeak ere. Horri buruzko hausnarketa saioa antolatu dute hildaren 25erako. Lilan izango da, 18:00etan, Loredi Salegik gidatuta. Saioa doan izango da eta ez da izenik eman behar.

## Karakaten zentral eoliko bat eraikitzeko proiektua gelditzeko eta mendia babesteko taldea sortu dute Elgoibarren

**K**arakaten zentral eoliko bat eraikitzeko argitaratu den proiektuak kezkatuta du herritar talde bat, eta elkartzea erabaki dute, egitasmo hori geldiarazteko eta Karakate babesteko elkarrekin lan egiteko. Jakinarazi dute lanean ari direla zenbait jardunbide eta ekintza antolatzen.

Aipaturiko helburuez gainera, azpimarratu dute eredu energetiko alternatiboan lanketa ere egin nahi dutela. Taldean parte hartzeko ateak irekita dituztela azaldu dute, eta ekarpena egitera animatu dituzte herritarrek. Eguetan egiten dituzte bilerak, 19:00etan, Morkaiko mendizale elkartearen lokalean, Errosario kalean. Hurrengo asteko bilera, baina, eguenetik martitzenera, apirilaren 12ra, aurreratu dute, Aste Santua delako. Batzarretara gerturatzetik ez dutenek ere badute euren alea jartzeko aukera, nolahi ere. Ekarpenak egin nahi dituztenei, zalantzen berri eman nahi dutenei edota era batera edo bestera laguntzeko prest daudenei Morkaikoren helbide elektronikora idazteko eskatu diete: [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus).



“Duela bi hamarkada antzeko proiektu bat geratzea lortu zuten herritarren mobilizazioek. Oraingoan ere mehatxua hor dago, eta denon ekarpena izango da beharrezko aurrera egin ez dezan”, zabaldu dute.

## Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak bihar eta etzirako

Pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak astebururako, bihar eta etzirako, eta hiru tabernak parte hartuko dute, Aitz Beltzek, Lagun Betikoak-ek eta Uztargik. Goizez eta arratsaldean salduko dituzte lehiaketarako propio sortutako mokaduak tabernariak: goizez, 12:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Herritarrek euren pintxo gustukuen aukeratu ahal izango dute gero, eta parte hartzen dutenen artean 50 euroko hiru erosketa-bono zozketatuko diuzte. Bihar arratsaldean, gainera, Bizi Poza txaranga ibiliko da kaleak girotzen.

## Elgoibarko udalbatzaren osoko bilkurak streaming bidez jarraitu ahal izango dira

Udalbatzaren osoko bilkurak zuzenean ikusteko streaming sistema izango du Elgoibarko udaletxeak apiriletik aurrera. Udalak 2022ko martxoaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuten bilkurak streaming bidez ematea, [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) udal webgunearen bidez. Udalak sare sozialetan dituen kontuetatik ere zabalduko dute (Twitter, Facebook, Instagram eta Youtube)

## Migranteen erregularizaziorako sinadura bilketa egingo dute gaur Mendaron

*Inor ez da ilegal. Eskubide guztiak denontzat, le-mapean Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak hasitako kanpainarekin bat egin du Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak, eta mahaia jarriko dute gaur plazan, pertsona migranteak erregularizatzeko sinadurak biltzeko. NAN edo Nortasun Agiri Nazionala duten 18 urtez gorakoek bakarrik sinatu ahal izango dute. Mugimendutik jakinarazi dute 500.000 sinadura behar dituztela herri-ekimen legegilearen tresna erabilita, Kongresuari gaia eztabaidatzeko eta legea onartzeko proposatzeko. Sustatzaileek ohartarazi dute migranteak oinarritzko zerbitzu publikoetatik baztertuta daudela, hala nola hezkuntza eta osasunetik, eta asko, gainera, lanean esplotatuta daudela. Era berean, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima ere izan daitezkeela nabarmendu dute eta justizia soziala eta erreparazioa eskatu dute haientzat.*

## Heriotzari buruzko jardunaldien barruan, 'Aurretiazko azken borondateak' hitzaldia antolatu du Bihotzetik-ek hilaren 25erako

Bihotzetik elkarteak sustatuta, heriotzari buruzko jardunaldiak ari dira egiten Gipuzkoako sei herritan, tartean Elgoibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiko ekonomia departamentuak eta Adinberrik finantzaturako jarduerak dira, eta Bihotzetik elkarteak koordinatzen ditu, Bidasoa zurekin, Bidegin, Zainbizi, Zarautz herri zaintzalea eta Almaur elkarteekin batera. Guztira, 42 saio eskaini dituzte. Atzorako zegoen iragarrita saio horietako bat, Elgoibarren. Iñaki Peña Debagoieneko ospitaleko zainketa aringarrietako medikuak heriotza duinari buruzko hitzaldia emateko zuen Kultur Etxean, eta hilaren 25erako dute iragarria hurrengo saioa. Aurretiazko borondateen dokumentuari buruzko hitzaldia izango da, eta Bihotzetik elkarteko Javier Aramendiak emango du. Aurretiazko borondateen dokumentua osatuta edukitzeak dituen onurak azalduko ditu Aramendiak. Kultur Etxean izango da, 18:30ean hasita.

### Igogailu publikoen eta eskailera mekanikoen aurkako erasoak salatu ditu Udalak

Elgoibarko Udalak salatu du azken asteotan nabarmen ugairitu direla igogailu publikoen eta eskailera mekanikoen kontrako erasoak. Eskailera mekanikoen kasuan, erasoak Artekalen eta Urazandin izan dira. Stop usuario izeneko segurtasun botoiari emanda, eskailerak gelditu izan dituztela salatu dute Udaletik. Trenbide eta San Rokeko kaleak batzen dituen igogailuan eta anbulatorio aurrekoan, igogailua bera blokeatu arte saltoka ibili direnak ere izan direla gaineratu dute. Horren harira ohartarazi dute Udaltzaingoa eta Ertzaintza ari direla kasu hauen jarraipena egiten eta Udalak erasoon egileak identifikatzeko sistema ezarria duela azpiegitura hauetan eta hasia duela kalte ordainak eskatzeko bidea.



### Txankakuak 5.000 euroko laguntza jasoko du



Udalak eta Txankakua Merkataritza Elkarteak hitzarmena adostu dute tokiko merkataritza sustatzeko, eta horren barruan, 5.000 euroko laguntza jasoko du aurten Txankakuak, Elgoibarko merkataritza sustatzeko jardueretan erabiltzeko. Besteak beste, prestakuntza, komunikazioa, animazioa eta sustapenaren alorrean egingo dute lan, bai eta Elgoibarko aisialdi sektorean ere. Izan ere, "asoziazionismoa" sustatu nahi dutela jasoko dute bi aldeek, herriko merkataritzaren "irudi bateratua eta erakargarria" sustatzeko eta sendotzeko, eta bezeroak fidelizatzeko. Era berean, Elgoibarklik plataformaren digitalaren 2022rako ekintza plana gauzatu dutela ere esan dute, bai eta 9.000 euro gordeko dituztela ere aurten elkartearen sartzaren salbortzei kuotak ordaintzen laguntzeko.

### Maileguan hartutako liburuak itzultzeko buzoia jarri dute Mendaroko udaletxean

Udal liburutegian maileguan hartutako liburuak edota beste dokumentuak itzultzeko buzoia jarri dute Mendaroko udaletxean. Buzoia dagoen lekuraino udaletxea zabalik dagoen tarte guztietan sartu ahal izango da. Goizez; 8:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean, 17:30etik 20:00etara.

### 480 langabe Elgoibarren, eta 75 Mendaron

Martxoko datuen arabera, 480 (%8,85) herritar daude langabezian Elgoibarren, eta 75 Mendaron (%7,38). Eskualdeko herri guztiak hartuta, langabezia-tasa %10,57koa da Debabarrenean (otsailen %10,23koa zen). Tasarik apalena Deak dauka, %6,21koa, eta altuena, berriz, Soralezek, %12,11koa.



## “Bizitza maleta batean sartuta iristen dira errefuxiatuak”

► **LEYRE CASTRO** POLONIAN BIZI DEN ELGOIBARTARRA

Nazioarteko Harremanak ikasi ditu Leyre Castrok (Elgoibar, 1997) Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Erasmus programaren bitartez joan zen Poloniara 2018an, ikasketen hirugarren mailan. Urtebetez egon zen Krakovian, eta berriz itzuli zen Bilbora, ikasketak amaitzera. Ondoren, masterra egitera joan zen berriz Krakoviara. Praktikak Armenian egin nahi zituen, baina han gerra piztu zenez, Varsoviara joan zen. Nazioarteko Segurtasuna eta goi mailako politika ikertzen duen enpresa batean egin zituen praktikak, eta momentuz Polonian geratzea erabaki du, Europa ekialdeko herrialde post-komunistetako politika interesatzen zaiolako. Ukrainako gerra gertutik bizi du, beldurrez une batzuetan, kezka beste batzuetan, eta bere lanari lotuta, interesez ere bai. Ukrainako errefuxiatuei laguntzeko hainbat ekimen burutu ditu, eta horren berri eman digu.

♦ **Europa ekialdeko politikarekiko duzun interesak eraman zaitu Poloniara.**

Bai, herrialde hauetako demokraziak interesatzen zaizkit. Europako herrialdeetako demokraziak oso desberdinak dira, eta bereziki herrialde post-komunistak interesatzen zaizkit. Hemengoak ez dira demokrazia liberalak, eta hori idazten jardun naiz. Horretan espezializatu naiz, eta horregatik nago Polonian.

♦ **Ukrainarekin mugan zaudete. Nola bizi duzu gerra?**

Politikoki interes handia daukat herrialde hauetan, eta alde horretatik gerra interes handiz bizi dut, baina bestela, egoera oso gogorra izan da. Orain lasiago gaude, baina hasieran etengabe albistegiak ikusten egoten ginen denok. Irudi benetan beldurgarriak ikusi ditugu, eta egoera latza da. Poloniara bi milioi errefuxiatu inguru iritsi dira, eta hori herrialde batentzat asko da. Ni Varsovia bizi naiz, eta tren geltokiko irudiak beldurgarriak dira. Errefuxiatuak ezer gabe iristen dira, maleta txiki bat eskuan dutela, jendea han inguruan lotan... Varsoviako populazioa %10 handitu da azken hilabeteetan, eta hori hiri batentzat sekulakoa da.

♦ **Errefuxiatu horiei laguntzea erabaki zenuen, eta sare sozialen bidez egin zenuen deialdia. Nolako erantzuna izan duzu?**

Instagram bidez egin dut diru bilketa, eta uste nuena baino erantzun zabala goa jaso dut. Boluntario asko dabil lanean, baina ni hasieran ezin nintzen boluntario izan horretarako ezinbestekoa zelako polonieraz, errusieraz edo ukraineraz hitz egitea. Orain badaude ingelesez funtzionatzen duten boluntario taldeak, baina hasieran ez, eta nik polonieraz ulertzen dut zerbait, baina ez dut hitz egiten. Varsovia eta Krakovia erraza da ingelesez bizitzea. Ekialdean zailagoa da, jende gehiagok hitz egiten duelako polonieraz, baina hiriburuan denek dakite ingelesez. Ikasketak ingelesez egin ditut hemen, eta ikasgai moduan izan nuen poloniera hizkuntza,



baina oso zaila iruditu zitzaidan. Hemen jende asko bizi da polonieraz, hiztun asko ditu. Diasporan ere, Londresen eta Chicagon, esaterako, poloniar asko bizi dira. Ikasten ari naiz, eta gero eta gehiago ulertzen dut, baina esan bezala, boluntario taldeetan aritzeko ez zen nahikoa. Hala ere, laguntzeko beharra sentitzen nuen, eta Instagramen abiatu nuen kanpaina. Lehenengo nire senideek eta lagunek lagundu zidaten, baina gerora ezagutzen ez nauen jendeak ere bidali zidan dirua. 2.500 euro inguru batu ditut, ia 12.000 zloty, eta diru horrekin gauza asko eros daitezke.

#### ◆ Zein material erosi duzu?

Gauza asko, baina gehienbat kontserbak eta erraz hondatzen ez den janaria. Kontuan izanda errufuxiatu gehienak emakume eta umeak direla, konpresa eta paradelak ere asko erosi nituen. Botikak, esaterako, ez nituen erosi, hori Poloniako Gobernuak ematen duelako. Azkenean baina, kanpaina eten egin nuen, logistika arazoak nituelako. Ez daukat autorik eta erosten nuen guztia bilketa punturen batera eramateko lagunen bati eskatu behar izaten nion laguntza. Aurrerago agian saiatuko naiz berriz bilketa handiago bat egiten, eta kasu horretan posible izango litzateke kamioi bat alokatzea. 2.500 euroekin kamioiaren gastua ere neure gain hartzea asko da, baina diru kopuru handiagoa lortuko banu, posible izango litzatekeela iruditzen zait. Jantziak ematekotan ere egon nintzen, baina jakinarazi dute une honetan ez dutela arroparik behar, jende askok eman dizkielako. Ikusi nuen Elgoibartik ere kamioi handi bat etorri zela arropaz eta janariz beteta.

#### ◆ Kanpaina honekin zeini lagundu nahi zenion ere oso argi zeneukan.

Bai, zibilei lagundu nahi nien, eta ez soldaduei, eta hori argi eta garbi azaldu nuen hasieratik Instagramen. Soldaduei lagunduta sentitzen nuen nolabait gerra finantzatzen ari nintzela, eta hori ez zen nire asmoa. Sufritzen ari den jende zibilar lagundu nahi nion, errefuxiatuei, Ukrainakoak edo Errusiakoak izan ez zait inporta, benetan sufritzen ari badira. Gerraren on-

## “Zibilei lagundu nahi nien, eta hori argi azaldu nuen hasieratik Instagramen”

dorioak jasaten ari diren zibilei laguntzea izan da nire helburua hasieratik.

#### ◆ Nola ikusi dituzu Varsoviara iritsi diren errefuxiatuak?

Egoera oso gogorra bizi dute. Tren geltokiko irudiak beldurgarriak dira, benetan. Emakumeak eta umeak dira gehienak, eta bizitza maleta batean sartuta iristen dira, beste ezer gabe. Ez daukate nora jo, ez daukate ezer, ez etxerik, ez familiarik, ez dirurik... etorkizunik gabe iristen dira. Gero izango dute etorkizuna, hemen aurkituko dituzte aurrera begirako

aukerak, baina une honetan ondo izorratuta daude. Ukrainarrak, gainera, ez dira Europako Batasuneko biztanleak, eta horrek ere zaildu egiten die lana bilatzea, baimen bereziak behar dituztelako. Orain errazago jarri dute, baina oraindik konplikatu da. Jende asko kiroldegietan eta beste hainbat gunetan dago lotan, denak pilatuta, eta horietako asko ez daudenez Covidaren kontra txertatuta, jende asko ari da kutsatzen. Musukoak eta gel hidroalkoholikoa eskatu dituzte, eta egin nuen donazioetako batean produktu horiek ere eraman nizkien.

#### ◆ Orain zertan diharduzu Varsovia?

Masterra bukatu dut, eta orain lanean nabil, baina ez nik ikasi dudanean. Aurrera begira gustatuko litzaidake nire espezializazioan ikerketaren bat egitea, eta beharbada doktoretza ere egingo dut.



Baina orain arte denbora asko eman dut ikasten, eta orain behar dut atsedena hartzea. Dena dela, gerora nire esparruan lan egitea gustatuko litzaidake, eta nik uste ez dudala arazorik izango. Nazioarteko segurtasuna, demokraziak, goi mailako politika... hori da nire alorra, eta gertatzen ari den guztiarekin ez dut uste lanik faltako zaidanik. Baina bi milioi pertsona gehiago gara orain, eta horrek, luzeza, arazoak ekarri ditzake. Orain Polonia laguntzen ari da, eta jendea elkartasunez ari da, baina elkartasun horrek ez dakigu zenbat iraungo duten. Poloniak ez dauka harreman onik Errusiarekin ere, eta horregatik ari da orain ukrainarrei laguntzen, baina lehen Afganistandik ere hasi ziren errefuxiatuak etortzen, eta orduan mugak itxi zituzten. Beraz, ez dakit aurrerantzean zer gertatuko den.

♦ **Goi mailako politika ikasi duzu. Horrek laguntzen du Ukrainan gertatzen ari dena hobeto ulertzen?**

Nire ustez gerra hau boterearen eta geopolitikaren gerra da. Gerra hasi aurretik *Prisoners of geography* liburua irakurri nuen (Geografiaren presoak), eta han kontatzen du Errusiak ez daukala izoztuta ez dagoen itsasorako irteerarik, eta Ukraina bereganatuko balu, hori lortuko lukeela. Horrek geopolitikoki abantaila handia eskainiko liokeela aipatzen du liburuan. Horrez gain, Errusiari Ukrainako gasa ere interesatzen zaio, Alemaniak ekialdera gauden herrialde guztiok hango gasa erabiltzen dugulako. Baina beno, inbasioa orain hasi dela dirudien arren, urteetan ari ziren Errusiarrak Ukrainan sartzen. Ukrainak, bestalde, Europar dauka interesa, eta Errusiari hori ez zaio gustatzen, eta hau izan da modu bat bere boterea eta bere agintea erakusteko. Putinek nolabait erakutsi nahi die han berak agintzen duela.

♦ **Ukraina oso gertu daukazu. Nola bizi duzu horren gertutik gerra hau?**

Polonian NATOren aldekoak dira, eta Errusia hain gertu izanik, ulertzen dut bereaien posizionamendu hori. Euskal Herrian agian ez dago sentimendu hori hain garatua Errusia urrun dagoelako, baina



*“Hemen uste dute Putin ez dela ausartuko NATOko herrialde bati erasotzen”*

hemen NATO n dute fedea, babestuta sentitzen dira eta uste dute Errusia ez dela Polonian sartuko, bestela NATO n dauden gainerako herrialdeak ere gerran sartuko liratekeelako. NATOko bosgarren artikulua dio NATOko herrialderen bat erasotzen badute, gainerako herrialdeek defendatu egin behar dutela, beraz, horrekin babestuta sentitzen dira eta uste dute Putin ez dela ausartuko NATOko herrialde bati erasotzen. Hala ere, beldurra nabari da. Orain dela hiru aste Polonia ekialdeko herri batera joatekoa nintzen janaria eramatera eta hango 3 errefuxiatu Varsoviara ekartzera, autoan kabitzen zirenak, baina aste hartan han gertu zegoen base militar bat bonbardatu zuten, eta ez nintzen joan. Ukrainako lurretan zegoen, baina Poloniatik 30 kilometrora, eta bonbak horren gertu ikusteak beldurra ematen du. Nire etxekoak kezkatuta

daude nigatik, eta ulertzekoa da. Azken batean, etxetik urrun eta gerratik gertu nago. Varsoviatik desberdin ikusten da gerra, ez gaude muga, baina kezka pixkat denok daukagu.

♦ **Noiz arte ikusten duzu zure burua Polonian?**

Ez dakit. Momentuz gustura nago hemen, eta gustatzen zaidan alorra lantzeko oso leku aproposa da. Gradu amaierako lana Poloniako demokraziari buruz egin nuen, eta gai horietan sakontzeko aukera daukat hemen. Gerra hasi aurretik Errusia edo Ukraina ere begiz jota nituen, baina Europako Batasunean bizitzea errazagoa da. Europar ekialdeko politika Euskal Herriatik ikastea posible da, baina urrutiegi dago gauzak ondo ulertzeko, eta momentuz hemen jarraituko dut. Etorkizunean, agian, gustura joango nintzateke Alemaniara, baina momentuz behintzat, ez daukat Elgoibarrera itzultzeko asmorik. Urte batzuk barru, agian bueltatuko naiz herrira, baina momentuz hiri batean bizitzen gustura nago. Mazedonian bizitzen ere egon nintzen duela hiru urte, Alemanian ere bai... mundua ezagutzea gustatzen zait.

# ELGOIBARREK HITZEKIN DU

Apirilaren 1ean iritsi zen Korrika Elgoibarrera, eta harrera beroa egin zion herriak. Goizeko 10:00ak aldera hasi zen Mautitxa txaranga berez hotz zegoen giroa berotzen, eta Kalegoen plaza dantzan jarri zuten. Saturion hartu zuten Elgoibarrek lekukoa, eta 27 taldek pasatu zuten eskutik eskura, herriari buelta eman eta Maltzagan Soraluzekoei entregatu arte. Euria eta txingorra ez ziren falta izan, baina azkenerako, eguzkia ere batu zen euskararen festara. Martitzenean, berriz, Korrika Txikia egin zuten Herri Eskolako eta Ikastolako ume eta irakasleek, eta kaleak kolorez jantzi zituzten. Mendaroko ikastolakoek eskolako jolastokian egin zuten. 22. edizioan ere, Elgoibarrek Hitzekin du. Bideoak eta argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)



Meka Lanbide Heziketa, Institutua eta IMH



Biharko Gipuzkoa S.L. San Lazaro Egoitza



Elgoibarko Sanlo EKT



Mautitxa Txaranga



Haritz Euskal



Arno Guraso Elkarte eta Mendaro Ikastola



Mendaroko Udala




Elgoibarko ud



Ideko S. Koop.



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea




Alcorta Forgi



Morkaiko Mendizale Elkarte



Haizea Emakume Taldea



LAB-Rodis



Dantzari Taldea



Elgoibar ikastolako gurasoak



Elgoibar ikastolako langileak



al ordezkariak



Elgoibarko udal langileak



Danobat Koop.



g Group S.A.



PuntuEus fundazioa



EH Bildu Elgoibar



r-Schaeffler



Txankakua Elgoibarko Merkataria Elkarte



C.D. Elgoibar



Etxepe




EAJ-PNV



Elgoibarko Kimetz Elkartea



Elgoibarko Haurreskola eta Herri Eskola



AEK euskaltegia



Korrika txikia



Korrika txikia



Korrika txikia



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



### **E**rrotaberri kaleko edukiontzien ondoko lurra hondatuta dago:

"Zaborra edukiontzira bota eta atzera egin ostean, lurrera erori eta bihurritu bat egin nuen. Hiru hilabete daramatzat minez. Zuloa dago espaloian, edukiontzitik oso gertu, eta trabatu egin nintzen. Iluntzen duenean, are arriskutsuagoa da ingurune hori, oso argi gutxi dagoelako. Eskertuko genuke lurra konpondu eta ingurune horretako argiztapena hobetzea".



### **B**asartetik arduraz jokatzeko eskaera:

"24 ordu zerbitzua emateko baimena duen saltoki bat daukagu auzoan, Basarten, eta haren bueltan pilotzen den jendetza ikusita honakoa eskatzen dugu auzotarrok: batetik, herrian dauden era honetako beste saltokiek bezala, pertsiana nagusia jaitea gauetan, 22:00etatik aurrera. Bestetik, gure etxepera batzen direnei arduraz jokatzeko, inguruak garbi mantentzeko eta gainerakoon atsederako orduak errespetatzeko eskatzen diegu, eta agintariei, berriz, hori betetzen dela zaintzeko".



### **I**kastola ondoko berdegunean haurrentzako parke bat egin beharko lukete:

"Ikastola alboko berdegunea ingurune oso eguzkitsua da, eta eguraldi ona egiten duenean jende asko geratzen da bertan jolasten. Gero eta jende gehiago pilotzen da, eta iruditzen zaigu gune oso aproposa dela umeentzako parkeren bat egiteko. Inguruak lautu, eta goiko zuhaitzetara igotzeko bidea mantenduta, auzoak ere asko irabaziko luke, ingurune horretan jende asko bizi da eta ez dago parke bat bera ere. Iturri bat jartzea ere eskatzen dugu, ingurune horretan ez dagoelako ur botilak betetzeko aukerarik".

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
 cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
 943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranao  
 Guillermo Torres  
 Elgoibar  
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
 Asteleheneik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
 Larribatak: 11:00 - 13:00

Leopindegi zerbitzua daukagu.  
 Deitu ardua hartuko.

# Maraca Diablo, pandemiak biziz berritua

Izan da pandemiak sormena kamustu dionik, baina izan dira bestelakoak ere. Horixe da gaur Maraca Diablo osatzen dutenen kasua. Pandemia betean, itxialdiaren gogorrean, sortutako piezekin eta gerora etorritakoekin ondu dute disko berria bost lagunek: Ina Iriondok (ahotsa, gitarra eta teklatuak), Josu Iriondok (baxua), Asier Etxanizek (gitarra eta ahotsa), Anita Perezek (ahotsa eta sintetizadorea) eta Rafa Furnierrek (bateria eta perkusioa). 'Urta-roak' aurrerapen kanta zabaldu dute, bai eta lehen aurkezpen bideoa ere, eta aurki, apirilaren 22an, dute aurkeztekoa disko berria.

- AINARA ARGOTIA -

Arg.: Alessandra de Schmidt



// Maraca Diablo berri bat gara, baina oso barruan daramagu betiko Maraca Diablo”, jaso dute aurkezpen-kartan. Ina Iriondo musikari mendaroarraren proiektua da sortzez Maraca Diablo, Anita Perez bikotekidearekin batera 2003an sortutako Munlet proiektuarekin paraleloan ibili duena, baina pandemian talde-proiektua bihurtu dena. Atzean gelditu dira Maraca Diablorekin bakarkako lanak: *Hail Zigarat!* (2012, Screaminguy Records) eta *El Regreso del niño* (2019, Screaminguy Records), baina ez haien esentzia. Baduelako haietatik ere berriak, “oinarria edo zutabe nagusia” Ina Iriondo bera duelako. Baina oraingoan ez dago bakarrik. Gehiago dira, eta bakoitzak bere erara astintzen ditu marakak, proiektuari ukitu berezia emanez. “Saiatu gara gauza landu bat egiten eta ikaragarri ondo pasatu dugu sortze-prozesuan. Talde-lana da hau, aspaldiko lagunekin ondutakoa eta igarri-igarrikoa da hori azken emaitzan”, nabarmendu du Ina Iriondok.

Garagardo baten bueltan elkartu gara Ina Iriondo, Josu Iriondo eta Rafa Furnierrekin, lagun talde honen beste proiektu batzuren hazia erne den taberna berean. “Gustatzen zait tea, baina garagardo batek beti sortzen du giroa musikaz hitz egiteko”. Eragin du konplize dituenen lehen barrea Inak, eta ekin dio kontaktari.

2020ko udaberrira egin du atzera, COVID-19a zabal ez zedin agintariek etxean itxi gintuzten sasaira. “Asko galdu genuen, baina niretzat egia esan, oso aberasgarria izan zen eten hura. Eguneroko bizi-erritmoa moteldu genuen derrigorrean, etxeokoen itxi ginen etxean, eta sortzeko behar den patxada berreskuratu nuen. Askoren kasua izan zela esango nuke, ikusi besterik ez dagoelako zenbat lan argitaratu diren gerora”. Lanera joan gabe egin zituen hamar bat egunetan sei-zazpi bat kanta osatu zituen Inak pilotuta zituen kantu-txatalekin, tartean diskoan etorriko diren lau, eta Kraftwerk talde alemaniarren *Das Model* kantuen bertsoia ere (*Modeloa*) grabatu zuen Josu Iriondorekin. “Musikari gisa, berpizte bat suposatu zuen niretzat itxialdian hasitako jolasak”, gehitu du ondotik lagunak. Ordurako, Elgoibarko lagunekin, tartean 6Nemen9tik lagunak zituen Asier Etxaniz eta Mikel Cornejorekin, hasia zen berriro Josu baxua astintzen, Elgoibarko Udalak herriko musikarientzako egokitutako lokaletan, baina Inarekin whatsapppe hasitako jolasa izan zuen benetako akuilua. Hirugarren jolaskide bat ere izan zuten hasiera hartan, Carlos Cebrian *Cebri*, hilhurren zuten laguna (Mendaro, 1971-2020).

2020ko ekainaren 3an hil zen Carlos Cebrian, Mendaroko kultur ekintza askoren eragilea, eta kolpe latza eragin zuen ingu-



ruotan. Besteak beste, Uler 600, Andrankan eta Munlet proiektuetan taldekide izan zutenaren omenez, Cebriday musika topaketa antolatuta zuten Elgoibarko Sinuöse taldekoek eta Mendaroko Gararock taldekoek urte hartako uztaileko. "Orduan deitu genion Rafari [Furnier], topaketa hartarako kantu batzuk prestatzeko", azaldu du Inak, eta batak bestea ekarri zuen. "Berotu ginen eta ltoitzen *Astelehen urdin batean* kantaren bertsioa grabatu genuen lehenengo, eta haren atzetik, baita diskoan etorriko diren beste zenbait kantu ere, baina berehala konturatu ginen beste gitarrajole bat behar genuela; behar genuela moldaketak egingo zizkigun norbait, eta deitu genion Asier Etxanizi. Aukera naturalena bera genuen", esan du Furnierrek. 2021eko otsailaren bueltan batu zen taldera Etxaniz, biribildu zuten proiektua udarako laurek eta abenduan estraineko zuzeneko eman zuten, Mutrikuko gaztetxean, Abendurock musika jaialdian [Diabolo Kiwi taldea izan zen beste talde gonbidatua]. Ez zuten besterik behar: "Gora etorri ginen".

### Bederatzi kantuko diskoa

Mendaron bertan grabatu zuten diskoa iaz, Intxarbakuntzako etxean, eta El Cubo estudioan egin dituzte nahasketak eta masteringa. "Diskoa etxean grabatzeak prozesua luzatu du, baina aldi berean, nahi beste moldaketa egiteko aukera eman digu,



detalle guztiak zaintzeko aukera, eta perspektiba ere eman digu, luzaroan irauteko", esan du Josuk.

Bederatzi kantuko diskoa da, euskaraz dira kantu guztiak, eta bi ez beste guztiak Inarenak dira. Asier Etxanizek sortutakoa da *Tartea hartu* eta Carlos Cebrianek konposatu eta Etxanizek berak euskaratutakoa da *Starlite*. Baina bada diskoan XV. mendeko eresi anonimo bat, *Milia Lasturko*, emakume ahotsean kantatua [Soraia Urbietak, Elena Zubiaurre eta Anita Perezek jarri dute ahotsa], bai eta Tomas Celanok XIII. mendean idatzitako olerki zatiekin osatutako beste kantu bat ere: *Dies Iraek*.

"Etxetik urrutira gabe bildutako istorioak dakartzagu, aspaldikoak eta gaur egungoak, oihartzun egiten digutenak ozen, nahiz eta hitzon esanahia ez den erabat gure eskuetan kabitzen", jaso dute aurkezpeneko oharrean. Kantuetan bada salaketa, badira ametsak eta istorio ilunak, beldurrak, heriotza, maitasuna, hutsa eta epika. "Kantu bakoitza mundu txiki bat da, film labur bat balitz bezala, bai soinu aldetik eta bai ikuspuntu lirikoetik, baina badago kirikordatzen dituen hari bat ere diskoan. Ezberdinak dira kantuak, baina koherenteak haien artean", azpimarratu du Inak. Eta badago diskoari izate berezia ematen dion beste ezaugarri bat ere: "Etxekoen artean sortua dela". Elena Zubiaurre eta Soraia Urbietak kuadrillakideez gain, Jesus eta Ekin Furnier osaba-ilobek ere parte hartu dute kanturen batzutan, eta Alessandra De Schmidthekek egin dizkie diskorako argazkiak, Altzolako tren geltokian, ltoitzen Eze-

kiel diskoari egindako "keinua" eginez.

"Disko berezia da, gure estiloek baldintzatutakoa jakina, baina aldi berean, antzik ez duena aurrez bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin egin dugunarekin. Berezia da, sailka ezina". Rocka, psikodelia, folka... askotarikoa da estiloan izenik gabeko disko hau. Ez baitu izenik, "Maraca Diablore hirugarren lana izan arren, talde-lan baten estreinako emaitza delako". Baina beste ezereen ginetik, zuzenekoetan defenditzeko lana da. "Diskoa aterako dugu lehenengo eta biniloan emango dugu gero, baina zuzenekoetan pentsatzen gaude gu orain", esan du Josuk. Aitortu dute ez dagoela erraza kontzertuak lotzea, pandemian agertoki asko itxi direlako, eta aldiz, kultur sorkuntza handitu egin delako. "Eskaria baino handiagoa da eskaintza", zehaztu dute. Baina ez ditu horrek kezkatzen. Beti izan dira "ertzetik ibiltzekoak" eta badute bidea egiteko itzaropena. Orain hurrengo, bi eginkizun dituzte lotuta: batetik, diskoa bera argitara ematea, apirilaren 22an, eta bestetik, bigarren bideoa aurkeztea, apirilaren 25ean. Azken horretarako, gainera, beste lagun bat inguratu dute: Eneko Etxaniz dantzari elgoibartarra.



#### Harremanetarako:

- [maracadiablo.bandcamp.com](http://maracadiablo.bandcamp.com)
- [www.facebook.com/MaracaDiablo](https://www.facebook.com/MaracaDiablo)
- [maracadiablo@gmail.com](mailto:maracadiablo@gmail.com)

**Gorraizia euki:**

1. Estar sordo. 2. Ironikoki: ez entzunarena egin.

## 184.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari, 2022an euskara sustatzeko ekimenak gauzatzeko

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak hitzarmena sinatu dute, eta horri esker 184.000 euroko dirulaguntza jasoko du euskara elkarteak, 2022an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Iñaki Kondek Elgoibarko Izarrako presidentek sinatu dute bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena, eta eurekin batera, Maialen Gurrutxaga, Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen arloetako zinegotzi arduraduna, eta Elgoibarko Izarrako eta Udaleko teknikariak ere izan dira. Aurreko urteetan bezala, dirulaguntza hori bi udal sailetatik bideratuko da. Horrela, Udalaren Euskara Sailetik 110.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak eta Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik, berriz, 74.000 euro. Guztira, iaz baino 24.000 euro gehiago jasoko ditu elkarteak. Hitzarmena sinatu ondoren, euskara elkarteak eskerrak eman dizkio Udalari. Izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, "ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatu nahi baditugu".



### Izen-abizenak euskaratzeko kanpaina jarri dute abian, Mendaron

UEMAk izen-abizenak euskalduntzeko kanpaina jarri du abian *Euskaraz naiz* leloarekin, eta ekimenarekin bat egin du Mendaroko Udalak. Udalerrri euskaldunetako herritarren sentsibilizazioan eragin, eta bide batez, nagusiki euskaraz bizi diren herritarrek eredu izan daitezkeen lortzea da helburua. Interesatuak Mendaroko Bake Epaitegian egin dezakete tramitea, barikuetan, 9:00etatik 14:00etara. Hauek dira izen-abizenak aldatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak: nortasun agiriaren fotokopia (adinez nagusiak ez direnen kasuan, gurasoena ere bai), hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria (epaitegian eskatzen da), errolda agiria (udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusiak ez direnen kasuan, gurasoena beharko dute), familia liburuaren fotokopia (ezkondata egonez gero edo seme-alabak dituztenez kasuan), eta seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia (16 urtetik gorako seme-alabak dituztenak).

### Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

Bi urteko etenaldiaren ostean, ekainaren bigarren asteburuan ospatuko dira Trinitate Jaiak Elgoibarren, eta nagusien danborrada ekainaren 11n izango da, 23:00etan. Atabal elkarteak danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du: 18 urtetik gorakoek har dezakete parte. Bakoitzak nahi duen teknika erabili dezake, baina ezinbestean agertu beharko da ondorengo testua: *Elgoibarko 2022ko danborrada. Ekainaren 11n 23:00etan*. Lanak Elgoibarko Udaleko Kultura Sailean (Aita Agirre kulturgunean) aurkeztu beharko dira, 2022ko maiatzaren 6rako (eguerdiko 13:00ak baino lehen). Irabazleari 300 euroko saria emango diote.

### Noa & The hell drinkers taldearen kontzertua Herriko Antzokian

Noa & The hell drinkers talde donostiarrak kontzertua emango du gaur, Herriko Antzokian. Eta ez dira bakarrik etorriko: beraien inguruko hainbat



musikari ere izango dira oholtzan, besteak beste, Paul San Martin, Lidia Insausti (Arima soul & the sky beats), Les Fous, Moho hand... Rock blues estiloko kontzertu berezia eskainiko dute. 19:00etan hasiko da saioa, eta sarrerek salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian.

## Giro onean ospatu zuten Hamaikasax saxofoi jotzaileen lehiaketa

Hamaikasax saxofoi jotzaile gazteen lehiaketa izan zen asteburuan Inazio Bereziartua musika eskolan, eta arduradunek esandakoaren arabera, giro onean joan zen. Nafarroako Goi-mailako Kontserbatorioko ikasleen kontzertua ere "oso polita" izan zela nabarmendu dute, eta saxofoizaleek izugarri gozatu zutela. Elgoibarko saxofoi jotzaileak finalera iritsi ez baziren ere, maila ona erakutsi zutela jakinarazi dute arduradunek. Hauek izan dira saridunak: B maila: 1. saria: Alex Butron Ollo (Iruñea). Saxofoirako produktu sorta bat irabazi du. A maila: 1. saria: Pablo Mira Rico (Alicante). 600 euro saxoantzako Selmer eta Vandoren produktuetan, 2023ko Hamaikasax ikastaroan matrikula doan eta Elgoibarko Udal Musika Bandarekin kontzertu bat bakarlarri gisa. 2. saria: Mafalda Maia (Oporto). 300 euro saxoantzako Selmer eta Vandoren produktuetan irabazi ditu. 3. saria: Ilija Pelayo (Kantabria). 150 euro saxoantzako Selmer eta Vandoren produktuetan.



### 'Oporretan irakurri' argazki lehiaketa

Udal Liburutegiak *Oporretan irakurri* argazki lehiaketa antolatu du. Adin guztietako herritarrek hartu dezakete parte, eta saria tablet bat izango da. Argazkiak apirilaren 29rako entregatu behar dira liburutegian, emailaz ([liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus)) edo whatsapppez (688 710 138). Jokin Martinez eta Manu Sanchezek osatuko dute epaimahaia.

Horrez gain, apirilaren 11tik aurrera erabilitako liburuen azoka jarriko dute liburutegiko arduradunek, Aita Agirre kulturguneko sarreran.



### Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaran Elgoibarko Institutuan izan dira

Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaran musikariak izan ziren martxoaren 15ean Elgoibar BHI institutuan, eta *Hitzen ahairea* literatur saio musikatua eskaini zuten. Bigarren Batxilergoko ikasleentzako saioa izan zen.

### Udaldiko aisia eskaintzan izena emateko epea apirilaren 25ean zabalduko dute

Atxutxiamaika eta Udal Ludoteka udaldiko aisia eskaintza antolatzeko lanean ari dira dagoeneko. Aste honetan bertan egin dituzte umeekin bilerak euren gustuko eskaintza prestatzeko, eta bilera horiek eman dutena aztertu ondoren zabalduko dute udaldiko eskaintzan izena emateko epea. Interesatuek apirilaren 25etik maiatzaren 13ra izango dute izena emateko aukera. Udaldiko eskaintza ekainaren 27tik uztailearen 22ra izango da, HH2tik LH6ra arteko umeentzat, 9:30etik 13:00etara. Elgoibarko Izarrak Goiz Txoko zerbitzua eskainiko du 8:00etatik 9:30era, eta horrez gain, eskaintza hori osatzeko txoko osagarriak eskainiko ditu ekainaren 20ko eta uztailearen 25eko asteetarako.



## Bar Txokok irabazi du afizionatuentzako Eibarko Futbol Txapelketa beteranoa



Eibarko foball-zaletuaren 40. edizio jokatzeko dihardute bailarako hainbat futbolari afizionatuk, eta bi jardunaldiren faltan eskuratu du Ligako titulua Bar Txoko taldeak. Eskualdeko hainbat jokalariz osatua dago Bar Txoko taldea, horien artean lau elgoibartar: Juanan Martin, Alex Zalba (taldeko kapitaina), Mikel Muniozguren eta Borja Olaizola. Izan ere elgoibartar ugarik jokatzen dute txapelketa honetan diharduten hamaika taldeetako batean. Covida dela-eta Liga txapelketako lehen itzulian atzeratu behar izan zituzten bi partida jokatzeke ditu Bar Txokok, baina horiek jokatu gabe ere, beraiena da Liga, matematikoki. Ligan lehiatu diren 11 taldeen artean gol gutxien jaso duen taldea izateaz gainera, Ligako goleatzaile onena izan da Mikel Muniozguren taldeko aurrelaria. KirolBet-ek babesten duen txapelketa hau irabazten duten hirugarren aldian da Bar Txokorentzat. Zapatuetan jokatzen dituzte partidak, Unbeko futbol zelaian. Liga amaitu ostean, Kopa Txapelketan lehiatuko dira orain Ligan aritu diren talde guztiak. Gainera, Kopako irabazleak, Ermuan jokatzen duten antzerako txapelketa batetako irabazlearen aurka jokatuko du.

### Eibarko igeriketa txapelketan lehiatu dira igerilari elgoibartarrak



Kirol Zehaztasun Ligako (KZL) laugarren jardunaldian parte hartu zuten benjamin mailako igerilariak zapatuan, Eibarko lpuurua kiroldegiko igerilekuan. Azpeitia, Azkoitia, Bergara, Oñati, Legazpi, Eibar eta Elgoibarko igerilari gaztetxoak lehiatu ziren, eta Elgoibar Igeriketa Taldetik jakitera eman dutenez, tximeleta, krol eta estiloetan aritu ziren igerian. Kirol Zehaztasun Ligako hurrengo jardunaldia Azpeitian jokatuko dute, apirilaren 30ean.



### Valentin Romeraren Oroimenezko txirrindulari lasterketa, domekan

Mintxetan hasi eta amaituko da domekan (apirilak 10) Valentin Romeraren Oroimenezko txirrindulari lasterketa. Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatzen du junior mailako txirrindularientzako lasterketa. Gainera, taldeko hiru txirrindulari lehiatuko dira proban: Eneko Ortega elgoibartarra, Aritz Esnaola mendararra eta Aitor Arranz eibartarra. Lasterketa 16:00etan hasiko da Mintxetatik, eta ibilbidea honakoa izango da: Elgoibar-Bergara-Elgoibar-Bergara-Elgoibar-Azkarate-Arriaga auzoa-Elgoibar-Azkarate-Arriaga. Helmuga Mintxetan izango da, 18:15ak aldera. Antolatzaileek ohartarazi dute boluntarioak behar dituztela ibilbidean zehar dauden bidegurutzeak zaintzeko. Laguntzeko prest daudenak honako e-postara idatzi behar dute: [elt\\_txe@hotmail.com](mailto:elt_txe@hotmail.com). Iaz, lasterketaren 41. edizioan, Hugo Aznar txirrindulari nafarra gailendu zen.

### Euskal Herriko Itzulia, bihar

Zapatuan Euskal Herriko Itzuliaren 6. etapa, azkena, jokatuko dute, eta lasterketa Elgoibartik eta Mendarotik igaroko da. Eibarren hasi eta Eibarren bertan, Arrateko gainean, bukatuko da etapa. Antolakuntzatik zabaldu duten ibilbide-oriaren arabera, 14:08ean pasatuko dira lehenik Elgoibartik eta 14:17an Mendarotik. Etapa amaieran, Urkaregi mendatetik behera sartuko dira berriro Elgoibarren txirrindulariak, 17:00ak aldera.

## Igoera kanporaketetarako sailkapena ziurtatu eta gero, Euskadiko txapelkun izan nahi du Alcortak



Igoera faseko azkenaurreko jardunaldian ziurtatu du Alcortak Forging Group eskubaloitzaile taldeak Lehen Nazional mailarako igoera kanporaketak jokatzeko sailkatzea. Joan den zapatuan Olaizagan jokatuak neketan Fagor Professional Aloña Mendiri 26-25 irabazi ostean eskuratu zuen sailkapena, matematikoki. Elgoibartarrak igoera faseko lehen postuan daude orain, 12 punturekin. Bigarren postuan dagoen Indupime Basaurik 11 puntu ditu eta 10 puntu Ereintza Beissier taldeak. Alcortak Ereintza izango du aurkari, Erreterian jokatuak duten azken jardunaldiko norgehiagokan. Sailkapena kontuan izanda, lehen hiru sailkatuen arteko lehiatik irten beharko lukete igoerako kanporaketak jokatuak dituzten bi taldeen izenak, baina Ereintzak ez du mailaz igotzeko aukerarik, horretarako aukera kantxan irabazita ere, Nazional Mailan diharduen talde baten filiala baita, eta araudiaren arabera klub bereko bi talde ezin direlako maila berean lehiatu. Hortaz, izan zezakeena baino zirrara txikiagoa izango du azken jardunaldiak. Edonola ere, igoera faseko lehen postua eskuratzeko eta Euskadiko Txapelketa irabazteko erronka jarri dio bere buruari Alcortak. Titulua eskuratzeko gainera, azken garaien hori onuragarria izango litzateke taldearen motibazioarako eta abantaila ere eman diezaiolke kanporaketetako gurutzaketei begira.

## 101 neska-mutilek parte hartuko dute kirol campusean

2015 eta 2010. urteen artean jaiotako 101 haur eta gazte hartuko dute parte Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen Aste Santuko campusean, apirilaren 11tik 22ra. 2021eko edizioarekin alderatuta, parte-hartzea 36 pertsonatan jaitsi da, baina 2019arekin alderatuta



(2020an ez zen campusa antolatuta Covid-19aren ondorioz), nabarmen egin du gora, izan ere, duela 3 urte 28 hurrek hartu zuten parte Kirol Campus honetan. Zazpi begiraleren ardurapean arituko dira eta hainbat kirol eta jarduerak egingo dituzte, besteak beste, eskalada, mendia, atletismoa, acrosport, herri-kirolak, skate-surfskate-patinak, padela, futbola, beisbola, eskubaloia, kolpbola eta zumba.



## 58 lagunek eman dute izena eskalada ikastaroan

Eskaladaren hastapenei buruzko ikastaroa hasi zuten astelehenean 58 neska-mutilek, Olaizagako rokodromo berrituan. Bakoitzaren maila bereizteko saio batean hartu zuten parte lehenik eta hori egin ostean, hainbat talde osatu dituzte, gehienez bederatzita lagunekoa. Talde bakoitzak bi saio izango ditu astean: astelehen eta asteazkenetan, astearte eta ostegunetan edo asteazken eta ostiraletan. Udal Kirol Patronatuak berri berri duen rokodromoan trebatzeko aukera izango dute eskalada ikastaroko parte-hartzaileek. Zailtasun-maila desberdineko sei bide berri ditu orain rokodromoak, bakoitza bere kolorearekin.

## Yolanda Mateos, txapelkun, Mutrikuko pala txapelketan

Mutrikuko Emakumezkoen Binakako 2. Pala Txapelketako finalak jokatu zituzten aurreko asteburuan, Miruaitz pilotalekuan. Lehen Mailako finalean lehiatzen Yolanda Mateos elgoibartarra, Ainhoa Lacunzarekin bikotea osatuz eta 22-21 irabazi zioten Iratxe Astigarragari eta Amaia Aizpururi.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat.  
☎ 695 769 300

Etexko garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Euskalduna naiz.  
☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. Astebukaeretan lan egiteko prest.  
☎ 688 739 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan zein orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Adinekoekin edo gaixoekin ospitalean gaua pasatzeko ere prest nago, baita asteburuetan ere.  
☎ 688 959 575

Lanerako prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 688 725 715

Orduka egingo nuke lan, adinekoak edo umeak zaintzen. ☎ 631 229 408

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 664 851 672

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, asteburuetan. Etxeko langile moduan lan egiteko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan edo gauetan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua ditut.  
☎ 660 511 781 / 943 742 330

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Berehala hasiteko moduan nago. ☎ 642 044 712

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.  
☎ 631 677 339

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago, LH, DBH zein Batxilergo mailetan. ☎ 655 392 365

**GARAJEAK.....**  
Garaje plaza salgai edo alokairuan, Kalamua kalean. ☎ 650 043 495

**OSPAKIZUNAK.....**  
1972an jaiotakoen bazkaria, ekainaren 18an, Sigma jatetxean. Egun osoko egitaraua prestatzen ari dira 50. urteurrena ospatzeko. Izena emateko 80 euro ordaindu behar dira, maiatzaren 31rako: ES40 3035 0007 26 0071134189 (Laboral Kutxa). Ordaintzerakoan izen-abizenak zehaztu behar dira.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure komunitatean argi-patio bat dago jabe batek baino erabiltzen ez duena. Jakin nahi nuke nori dagozkion patio horren mantentze lanak, komunitateari ala erabiltzen duen jabeari.**

Argi-patioetan eta terrazetan irizpide berdinak hartu behar dira kontuan (nahiz eta bakar batek erabili), baita elementu komuna izendatzeari buruz ere. Terraza eta patioen konponketa eta mantentze gastuak ezberdinak izango dira. Kontuan hartuko da egiturarena den (eraikuntza edo mantentze akatsengatik), edo erabilerarena den konpondu beharreko kaltea. Beraz, komunitateak ordaindu beharko ditu egiturari dagozkionak eta kalteak erabilerak eragindakoak badira patio edo terrazaren erabiltzailea arduratuko da gastu horiek ordaintzeaz. Hala dio legeak elementu komunak modu pribatuan erabiltzen dituzten jabeen betebeharez ari denean.

**Aholkua: Argi-patioaren mantentze eta garbiketaren ardurak esklusiboki erabili eta besteei erabiltzen uzten ez dien jabe horri dagokio. Beraz, ezin dio komunitateari derrigorrez eskatu betebehaz hori egitea, ezta patioa erabiltzen duen jabeak gaizki edo ardurarik gabe erabili duenean patioan sortutako kalteez komunitatea arduratzea ere.**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Danel**, asteazkenean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat aitaxo, amaxo eta, bereziki, Peioren partetik.



Zorionak, **Luke**, apirilaren 9an, 9 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Eulali**, apirilaren 5ean, 10 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat aitaxo eta amaxoren partez.



Zorionak, **Pello!** Ondo-ondo pasa zure bosgarren urtebetetzean! Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak! 81 urte, apirilaren 13an, eta sekula baino gogo handiagoa etxetik irten eta parrandarako! Maite zaitugu amama, **Karmen!** Etxekoak



Hasita gaude jai handirako prestatzen, **Libe!** 6 urte handi apirilaren 16an. Zorionak eta patxo handi bat, maite zaitugunon partez. Bizi pozik!



Zorionak, **Bikote!** 5 urte handi! Espero zuen eguna ondo pasatu izana! Patxo handi-handi bana!



Zorionak, **Lur**, zure hirugarren urtebetetzean. Segi orain arte bezain jator, bihurri! Etxekoan eta lagunaren partez, muxu handi bat..

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 740 284 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIAGAILUAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzeekin eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAK!**

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH WUU24T72ES ARROPA GARBIGAILUA



**589 €**



- 9 kg karga
- 1.200 b/min
- 30 minutuko programa azkarra
- Etenaldia + karga funtzioa
- Speed perfect funtzioa
- Antialergietarako programa
- Amaiera geroratua, 24 ordura arte
- Active water programa

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

## 8 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzek, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

**19:00** Kontzertua: Noa & the hell drinkers. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) edo zapatuetan, Herriko Antzokiko txarteldegian.

**19:00-20:00** Pertsona migranteen erregularizazioa eskatzeko sinadura bilketa Mendaron, Herriko Enparantzan. Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak antolatuta.

## 9 ZAPATUA

**10:00** Dolmenen ibilbidea. Karakateko aparkalekutik (gaztelaniaz). Izena emateko: 657 794 677.

## 10 IGANDEA

**16:15** Valentin Romeraren oroimenez lasterketa. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta. Mintxetan hasi eta bukatuko da.

## 18 ASTELEHENA

**10:00** Dolmenen ibilbidea. Karakateko aparkalekutik (euskaraz). Izena emateko: 657 794 677.

## 22 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Mi hijo sólo camina un poco más lento'. Tanittaka Teatroak taularatuko du. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)

## 25 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa taldea: 'Ama izan nahi ez duten emakumeak'. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Lilan.

**18:30** Hitzaldia: 'Aurretiazko borondateen dokumentua'. Bihotzetik elkarrearen eskutik, Javier Aramendiak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 29 BARIKUA

**17:00 eta 19:00** Familia antzerkia: 'Kuiqui'. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek aurkeztuko dute, Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)

**18:00** Hitzaldia: Elikadura nahasmenduak eta Iodifobia. Andrea Osorok emango du, gaztelaniaz. Lilan.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Las ilusiones perdidas'

9 zapatua: 19:00 / 22:15

10 domeka: 19:00

11 astelehena: 21:00

### 'Kaporito y el guardián de la montaña'

10 domeka: 16:30

### 'Las cartas de amor no existen'

14 eguena: 19:00

15 barikua: 19:00

### 'La peor persona del mundo'

16 zapatua: 19:00 / 22:15

17 domeka: 19:00

18 astelehena: 21:00

### 'Kikoriki deja vu'

17 domeka: 16:30

### 'Un héroe' (Ongarri)

20 eguaztena: 21:30

### 'Código emperador'

23 zapatua: 19:00 / 22:15

24 domeka: 19:00

25 astelehena: 21:30

### 'Los tipos malos'

24 domeka: 16:30

### 'Compartimento N°6' (Ongarri)

27 eguaztena: 21:00

## ASTE SANTU ETA PAZKO ELIZKIZUNAK

### ELGOIBARKO SAN BARTOLOME PARROKIAN

- **Apirilak 10, Erramu Domeka**

**11:00** Erramuen bedeinkapena eta meza.

Ez da prozesiorik egongo.

- **Apirilak 11, Astelehen Santua**

**19:00** Talde penitentzia.

- **Apirilak 12, Astearte Santua**

**19:00** Talde penitentzia.

- **Apirilak 14, Ostegun Santua**

**10:00-12:00** Bakarkako penitentzia.

**19:00** Jaunaren afariko meza.

**21:00** Ordu Santua.

- **Apirilak 15, Ostiral Santua**

**10:30** Gurutz Bidea.

**17:30** Jaunaren Nekaldiko ospakizuna.

- **Apirilak 16, zapatua**

**21:00** Pazko Gaubeila.

- **Apirilak 17, domeka**

Jaunaren Piztuerako Domeka

**11:00** Meza. Ez da prozesiorik egongo.

### MENDARON

- **Apirilak 9, 15:00etan**, Azpilgoetako parrokian Elkarteko Adiskidetze sakramentua.

- **Apirilak 10, domeka**

**12:30** Azpilgoetako parrokian, Erramu Igan-deko Eukaristia.

- **Apirilak 14, Ostegun Santua**

**17:00** Azpilgoetako parrokian, Jaunaren Azken Afariko Eukaristia.

**21:00** Azpilgoetako parrokian, Ordu Santua Jaunaren aurrean.

- **Apirilak 15, Ostiral Santua**

**11:00** Garagartzako parrokian, Gurutz Bidea.

**17:00** Azpilgoetako parrokian, Jaunaren Nekaldiko ospakizuna.

- **Apirilak 16, Larunbat Santua**

**21:00** Mendarotik Mutrikura autobusa abiatuko da, bi elkarrekin elkarrekin pazko gaubeila ospatzeko. (Izena eman behar da).

- **Apirilak 17, Pazko Igandea:**

**12:30** Garagartzako parrokian, Pazko Igan-deko Eukaristia.



**Botika ordutegiak** 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**GUARDIAK**

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

8 BARIKAKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA	11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA	14 EGUENA	15 BARIKAKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA	18 ASTELEHENA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez *Ibañez
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean ---
19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIKAKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIKAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Esther Mendinueta Berastegui.  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

**ETA, DEBABARRENEAN ZER?**

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA** APIRILAK 9, EIBAR-ARRATEKO GAINA (14:08-17:20)

Itzuliko etapa nagusia Eibarren hasiko da bihar, eta Arraten bukatuko da. 135,69 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulariek, eta bidean, Endoia, Azurki, Gorla, Urkaregi eta Usartza mendateak igo beharko dituzte. 14:05an irtengo dira Eibartik eta birritan pasatuko dira Elgoibartik. 14:08ak aldera, Mendarora bidean, eta Bizkaitik bueltan, Aiastiatik behera, 16:58ak aldera.

<p><b>Osasun gida</b></p>	<p><b>aldaz</b> hortz klinikak RPS233/13 Tel.: 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p><b>NATUR HOUSE</b> Ainara Iriondo Ansola GIZA ELKARDAKUN ETIA DIETETIKAN DIPLOMATUA Toribio Eteebania, 22 Eibar 677 551 850</p>	<p><b>fisio&amp;más</b> Fisioterapia aurreratua eta Kirol Borregokitzea Trenbide kalea, 13 943 740 191 / 667 963 625 www.fisio-mas.com RPS 87018</p>
<p>RPS 271/12 <b>ainhoa</b> fisioterapia Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p>	<p>RPS 183/12 <b>Uzuri</b> optika audio Elgoibar Tel.: 943 740 359 Deba Tel.: 943 192 192</p>	<p><b>Jeku eder</b> hortz klinika RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Aita Agirre Enparantza, 5 20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel.: 943 530 053</p>	<p><b>federópticos</b> <b>ikus</b> RPS 65/07 San Bartolome, 10 Tel.: 943 743 734</p>

## ► Javi Goitia eta Onditz Iturbek irabazi dute Kilimon Trail mendi lasterketa, Euskadiko Koparako proba puntuagarria

Mendi lasterketa gutxi erabakitzen diren moduan erabaki zen zapatuan Kilimon Trail lasterketako gizonen podiuma: lau lagunen arteko esprintean. Javi Goitia gernikarra izan zen lauretan azkarrena, 2:01:43ko denbora eginda, eta haren atzetik sartu ziren helmugan Imanol Goñi eta Asier Larruzea elkarrekin (2:01:48) eta Anders Kjaerevik norvegiarra, gero, lasterketa irabazteko faboritako bat zena (2:01:53). Emakumezkoetan, berriz, Onditz Iturbe igorrearra gailendu zen, nagusitasun osoz. 2:21:43ko denboran osatu zuen 23 kilometroko ibilbidea, eta ia bi minutura helmugaratu zen bigarrena: Ainara Urrutia. Podiuma, berriz, Mayi Mujika elgoibartarrak osatu zuen, 2:29:21eko denbora eginda. Hiru minutu geroago helmugaratu zen etxeko korrikalaria, Maite Maiora, gaur gaurkoz errekorren jabe dena. 2017an ezarri zuen errekorra Maiorak (2:16:14) eta inork ez du lortu ontzerik. Gizonen errekorra ere ondu gabe gelditu da aurten. Bartłomiej Przedwojewski poloniarrek du errekorra, 2018an ezarritakoa: 1:54:43.

Euskadiko Koparako proba puntuagarria izan zen zapatukoa eta Asier Larruzea eta Garazi Sanpedrok jantzi zuten liderraren elastiko berdea.

Eguraldi hotza eta bustia egin zuen. Elurak ere zuritu zituen Otarre eta Urnabitza inguruak, eta elurretan edota erabat lokaztutako lurretan aurrera egin behar izan zuten korrikalariak. Lasterketa hasi baino ordubete bat aurretik bota zuen kaskabar erauntsia ikusita, baina, pozik ziren antolatzaileak, lasterketak iraun zuen denboran ateri-antzean eutsi ziolako eguraldiak. Nolanahi ere, eragin zuen zapatuko eguraldiak parte-hartzean. 300 korrikalari zeuden izena emanda lasterketa luzerako esaterako, baina azkenean, 230ek parte hartu zuten, 213 gizonen eta 17 emakumezkoen. Lehenengo mendarorren saria, Ander Gorostegik jaso zuen gizonen artean, eta Maite Maiorak emakumezkoetan. Lizarpetik Gaintxipixarako kronoigoeran, bestalde, Jose Miguel Hernando eta Onditz Iturbe izan ziren azkarrenak, 03:23 eta 04:14ko denborekin hurrenez hurren.

### Lasterketa motza

Izena emandakoak baino sei korrikari gutxiagok jokatu zuten zapatuan Kilimon Trail motza, 11 kilometroko lasterketa: 144k. Ibilbidea berria zen aurten. Izan ere, pinadiak bota berri zituzten orain arteko ibilbidean eta luperiak ere izan di-



renez, bidea aldatu beharra izan dute antolatzaileek. Gustura ziren, hala ere, aldaketarekin, korrikariak egindako balorazioak entzunda. Lasterketari dagokionez, Jon Baz muskiztarra nagusitu zen gizonen artean eta Ezitzen Duque portugaletarra emakumezkoetan, 53:34 eta 1:10:05eko denborak eginda hurrenez hurren.

Gizonen artean, Aingeru Sainz galdakaoztarrak (55:00) eta Ibai Angulo azpeitiarrak (55:20) osatu zuten podiuma, eta emakumezkoetan, Ainhoa Caporossi zumaiarrak (1:14:44) eta Itziar Amutxastegi durangarrak (1:16:16). Gure ordezkarien artean bi mendarorrek egin zuten denborarik onena: Eneko Salegik gizonen artean (1:04:37) eta Myriam Martinek, emakumezkoetan (1:47:35).



III. URTEURRENA

*Mª Luisa Gárate Aizpitarte*

2019ko apirilaren 9an hil zen, 84 urte zituela.

***Zure irribarre goxoa  
eta maitasuna  
beti izango dira  
gure bihotzean.***

Etxekoak



V. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Gure oroimenean bizi zaren artean,  
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Etxekoak



V. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Zure oroimenak indartzen gaitu.***



ELGOIBARKO UDALAREN  
TXISTULARI TALDEA

# G R E M I O N E N GIDA

## ARROZTEGIAK

**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrialdea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzarriak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Aroztegia  Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Ermosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## ITURGINTZA

**ongi** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA** 

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[tailler@pagoagasa.com](mailto:tailler@pagoagasa.com)  
ELGOIBAR

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

